

Urtsu Handi (Urtsuandi)



MENDIZABAL PILDAIN familia

URTSUANDI Urtsu-Erreka auzoan dago. Auzoko beste baserriek bezala Urtsu du lehen izena eta bigarren zatiak tokiaren edo etxearen ezaugarriren bat eramaten du. Paraje izenen artean dira *Ordeka, Etxaspi, Etxane, Bernao, Illorrane, Egiko txuloa eta Muttei*.

Auzoko bidea 1937an egin zuten eta etxerainokoa ere bai.

Joxe Frantzisko Mendizabal Maria Engrazia Pildainekin ezkondu zen 1919an. Maria Engrazia Zumarragakoa zen, *Oiantxiki* baserrikoa, eta Zumarragatik Zaldibira arreoa gurdian hartu eta etorri ziren ezkontzera.

Eskolara oinez joaten ziren, eta bertara iristeko behar zituzten hiru ordu laurden. Etxetik goizeko zortzietan atera eta arratsaldeko seiak arte ez ziren itzultzen. Barre handiak egiten zituzten. Txitxia etxetik eramaten zuten eta ogia, berriz, dendan erosten zuten.

Hamaika seme-alaba izan zituzten: Kotsuelo, Merxe, Joan, Euxebi, Pepita, Faustina, Joxe Mari, Paulina, Mariaxun, Domingo eta Xegundo.

1965ean baserria erosi eta 1975ean egin zuten obra, sukaldea, terrazak eta bainua berriro zituzten.

Bizimodua baserritik eta artzaintzatik ateratzen zuten. Bazituzten 30 behi, 30 txerri eta ehun buruko artaldea. Ordiziako ferian saltzen zituzten txerriak, eta etxetik txekorrak, eta baratzean egiten zuten artoa, babarruna eta barazkiak. Gaztak, berriz, Ordizian eta Donostian saltzen zituzten. Gainera Xegundok Frabrikaria Handian eta *Yani* muelle fabrikari lan egin zuen eta Domingok, berriz, linterneritzan. Bertara bizikle-

tan joaten ziren. Joanek eta Joxe Marik erabaki zuten ganadu gehiagorekin etxean lan egitea eta bizimodua horrela ataratzea.

Alabak neskame atera ziren denak (zazpi ahizpa), Irun, Tolosa, Eibar, Ordizia, Donostia eta Zumarragara.

Artzain, batez ere aita ibiltzen zen. 1910az geroztik izan zuten artaldea. Artaldearekin maiatzean igotzen ziren mendira, Gazteluko atzealdera. Aita bakarrik joan ohi zen, baina oso gaztetatik berekin eramaten zituen Joxe Mari eta Joan semeak ere. Maiatzetik San Mielak arte mendian izaten ziren eta behorretan eramaten zuten janaria asteazkenero, txabolaraino ordubeteko bidea eginez. Bizkairaino ere iristen ziren abenduan, eta bidean bi egun egiten zituzten. San Josetan jaiotzen ziren arkumeak eta esnearekin gazta egiten zuten. Ordizian eta Tolosan saltzen zituzten arkumeak. Txabolarako ur karreketan beste ordu erdiko bidea bazen eta egunero joan ohi ziren ur bila.

Egindako gazta, batez ere Ordiziako azokan saltzen zuten, eta zumitzean egiten zuten gazta. Artilea ere bazuten eta ilearekin lan egiten zuten. Aurrena artilea kardatu, gero haria egin, ondoren etxerako galtzerdiak egin eta gainera ardi larruarekin abarkak egiten zituzten. Baina abarkekin ibiltzen lotsatu egiten zirenez, *Mariaundiñen* aldatu eta alpargatak jatzten zituzten elizara joateko.

Sarioan bazuten baratzea eta oiloak ere bazituzten. Aita eta bi semeak artzain ziren bitartean ama geratzen zen baserrian, eta han behiei jana eman, jetzi eta gari-makinarekin baserri baserri ere ibiltzen zen. Artzain bizimoduan amarentzat gogorrena uda eta negua izaten ziren.

Pasadizoak

Oilarra falta

Artzain txabolaren inguruan jolas eta joko asko izaten omen zen garai hartan. Zaldibitarrak elkartu eta izaten zen jolasik ere, eta zaldibitarrak elkartzean hantxe ibiltzen omen ziren, oilar harrapaketan eta beste joko batzuetan. Eta etxera etortzean andreak galdeztzen omen zion gizonari ea non zegoen oilarra eta berak erantzuten omen zion ez zekiela, ziurrenera azeriak jango zuela.

Informazio emailea:
Mariaxun Mendizabal



Kontsuelo, Mertxe, Joan, Euxebi, Pepita /
Paulina, Maria Engrazia (ama), Faustina, Joxe Frantzisko (aita), Joxe Mari /
Xegundo, Mariaxun eta Domingo.



Joxe Mari, Xegundo, Domingo, Fernando Castiella (Espainiako atzerri ministroa, tarterikoa) Frantziska Anttoni (Castiellaren lehengusua), Mariaxun, Kontsuelo, Pedro Garmendia, Faustina, Joan eta Inazio Garmendia.



Mariaxun, Faustina, Pepita eta Paulina (ahizpak).